

J. M. SATRUSTEGUI. *Bordel bertsularia*. Auspoa Liburutegia, 45-46. 1965.

Juanes Etxamendi «Bordel» (1792-1879) bertsulari aipatuaren eta bere familiaren aztarnak zeatz ematen ditu liburuaren lehen partean, «yite eztiitsuarekin», gure adiskide Satrustegik. Izan ere, «Bordel»-en itzala ez da izan nola naikoa. Manezaundik zion bezala: «Oxalde, Etxahun eta Boryel ziren mendiz bertze aldeko iru bertsulari aipatuena». Bertsuak «bihotzean erotik sartuak zituen gizona».

Bat-bateko bertsularia izanaz, gaiñera, Bordel'ek, ez bakarrik kanta, idatzi ere egiten zituan, bertularirik geienak analpabetoak ziren denbora aietan. Beraz, orrelako bilduma batean ezin genezakean gutxi espero.

Ez orixe, ez baita atsegintasun makala izaten euskeraz idatzitako liburu bat eskuetan arturik aisa irakurri ditzakeana. Idazle guztiak orrenbeste balekitez, gure zoriona.

Barne gogoz olerkari ziranen bertsulari oietakoa genuen Bordel. Gogo-miñaz gaiñera, buru argiduna zen, ideia aundikoa, ta bere ideia oiek kontzientzia garbian zintzo finkatzen ekian gizona.

Gaiñera, argi ikusi genezake zenbait bertsutan baduela molde beziririk. Ez dakit ziur bere aurretik erabili zen bertsuaren bukaerako itz berarekin ondorengo bertsuari asiera ematea. Nik ez dut ezagutzen beinipein. Ta Bordel'en oartu naiz maiz erabiltzen duela era ori.

21 kanta dakarzki liburuak. Beretako bi ez omen dira segurki bereak. Lafitte jaunak zion *Herria*-n: «Heietarik biga haatik (*Ene izpiritua* eta *Sortuz geroz*) ez gira batere segur Luzaidekoak direla. Aldiz uste dugu Baxenabarren bazirela kaieretan Boryel-en bertze kantu batzu, liburuak ekhartzen ez dituenak» (ikus *Herria*, 786. agorrilaren 19-koa. 1965).

Ez gera sartuko olako edo alako kantak Bordel'enak edo beste norbaitenak ziren: ez. Biltzailleak berak zentzuz juzgatzen daki bear danean, eta bere iritziak ontzak eman genezazke norbaitek bestelako juztififikantzarik ematen ez duen artean.

Bertsuak, ipuiak bezala, erriz-erri zabaltzen diranean ez baita erreza ziurtasunez igartzen beren sustraia nundikakoa den. Ta, maiz, itzai aundia izan dutenen lepora joaten dire. Ospetsuren bat izan duten errietan gerta diteke ori, bertakotzat jo eta baita bertsoaren bat edo beste geitu ere. Neri gertatua da, Eibar'ko bertsu ta kanta zaar biltzen nenbillela, bialdu ninduen kanta asko zekizkin agure zaar hatengana, ta, Eibarkotzat kantatu zidan Elizanburu'ren «Iragan besta bihar munian», bizkaierara aldatua. Bordel luzaidearrarenak ere noranai zabalduak izango dira aspaldidanik.

Ta ori gorabera, or daude, Bordel'ek aintzinatik merezi zuen ohorez, bere bertsu biribillak, bertsu betegarririk gabeak, biltzaillearen itzurre, bertsulari ospetsuaren biografiaz eta oar argigarriz beterik liburu bilduma batean, oso gustora irakurtzeko eran.

J. SAN MARTIN.

